

### 3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa, kirolariei zuzenduta dago. Ezer baina lehen, esan beharra daukagu gure segmentazioan ez dugula sexu irizpiderik ezarriko, kirola edonork praktikatzen dugulako. Nahiz eta, noski, edonork gure material zein arropa alokatu dezakeen, jarrion aipatuko dugu gure bezeroen profila zein izango den.

Kirolariei dagokionez, ez da kirol batean espezializatuta dauden pertsonentzat hain zuzenduta egongo; hau da, kirolari profesionalentzat ez. Baizik eta, kirola gustoko duten pertsonen eta kirol berriak probatzea eta egitea gustatzen zaienei. Honela jendeak edota kirolariek kirol desberdinak probatzeko aukera izateaz gain, hauek ekintza berriak probatzera eta orokorrean kirola sustatuko dugu. Aitzitik, kirolari perfila aurretik esandakoaz gain, lagunekin asteburu edota astebete inguruko ihesaldiak egiten dituzten 16-40 urte bitarteko gazte-helduak izango dira. Bezero talde honen barnean, edozein lurraldetakoak izan daitezke: badakigu seguruenik Donostialdeko bezeroak edukiko ditugula baina inguru hau bisitatzera ohitua dauden turista kirolariei ere zuzenduta dago gure zerbitzua. Euskal Herria edota Gipuzkoara etortzeko ohitura dutenak izango direla diogu, horrelako kirol bat praktikatzeko aurretik lekua ezagutu behar baita eta ondoren, ondorengoak. Beste ataletan azalduko dugu sakonago turista lokal edota kanpotarrei bideraturiko ofertak, aukerak eta ingurukoak.

Ikastetxeei dagokienez, beraientzat ere bideratuta egongo da enpresa, gorputz hezkuntza egiten duten gazteek, gure produktuak erabil ditzaketeelako bai ikastetxean zein edozein kirol ekintza ikastetxetik kanpo egiten badute ere. Eskolaz kanpoko kirol osagarriek ere balio dute gure proiektuan, esate baterako, ikastetxe batek eskiatzeko programa bat antolatzen badu lau egunetarako adibidez, nahi duten pertsonak apuntatu daitezke eta gure materiala alokatu. Normalean, ekintza hauetara jende gutxiago apuntatzen da, eskolak ordaintzen ez duen zerbait delako, baina hala ere edozein eskaera aldeztu aurretik eskatu egin behar da, gure materiala prest edukitzeko.

Gainera, familiei ere bideratuta dago FIT&CHEAP. Familietako gurasoak bizitza dinamikoa eta familian kirola egiteko ohitura dutenak izango dira. Lanaren edota kurtsoan zehar eskolaren ondorioz seguruenik ez dute izango kanpora oporretan joateko nahi adina denbora. Ondorioz, asteburu bat edota aste bat: eskiatzera, snow board egitera, mendian ibiltzera zein edozein ur ekintza egin nahi duten familiek alokatuko dute materiala gure dendan. Hauen haurrak ume txiki zein gazteak izango dira, izan ere, gure materiala ongi moldatuta dago bai 5 urteko ume txiki batek zein 15 urteko gazte batek erabiltzeko. Era berean, maiz seme alabak dituzten helduek kotxe handiagoa izaten dute eta ondorioz gure garraio zerbitzua ordaindu gabe, haiek eraman ahal izango dituzte alokatutakoak.

Aldiz, lehen aipatu bezala, gure enpresa ez da kirol profesionala praktikatzen duten pertsonen bideratuta egongo, beraiek beraien material propioa edukiko dutelako. Egia da beste kirol berri bat praktikatu nahi badute gure enpresa egokia

dela horretarako. Halaber, epe motzerako materiala alokatu nahi duten pertsonei ez dago gure enpresa bideratuta, esate baterako, bi ordurako Kontxan padel surf egin nahi duen pertsona batentzat.